



Arartekoaren 2017R-1697-16 Ebazpena, 2017ko uztailaren 31koa. Horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari gomendatzen zaio familia-giroan zaintzeko prestazioa lehenbailehen erregulariza dezala, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuari jarraiki, eta prestazioa eta lege orokorrean ezarritakoa bateragarriak izan daitezen berma dezala.

Aurrekariak

Herritar batek Arartekoarengana jo du eta erakunde honen esku-hartzea eskatu du, haren esanetan, Bizkaian, familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa eta eguneko zentro publikoaren zerbitzua ez direlako bateragarriak.

Kexagileak adierazi du 22 urteko mutil baten ama dela; bere semeak % 98,5eko ezgaitasuna dauka, A mugikortasun-baremoa eta aitortutako III Mailako mendekotasuna. Orain dela 2 urte arte, Aspaceren Loiuko zentroko erabiltzaile zen; orduan, Aspaceren Txurdinagako beste eguneko centro batera aldatu zen. Data horretatik aurrera, Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa jasotzeari utzi zion; izan ere, prestazio horretan ama zaintzaile gisa agertzen zen. Aitortu egin du eguneko zentroan bere semearen beharrak asetzen direla, batez ere, eguneroko bizitza mantentzearekin lotutakoak; hala ere, azpimarratu du eguneko zentroak ez diola arretarik ematen urteko egun guztietan eta ez dituela eguneko jarduera guztiak asetzen. Gaur egun, berak bere semea zaintzen jarraitu nahi du eta hori egiteko gai dela uste du, beste inoren laguntza gabe. Horregatik, Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa eskatzen du Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eskatu beharrean.

Azaroaren 22an, kexagileak hitzordua eskatu zuen Gizarte Ekintza Sailean, hainbat gairi buruz aritzeko. Abenduaren amaieran erantzun zioten eskaera horri. Idatzi horretan, aipatutako sailak berretsi zuen aipatutako prestazio ekonomikoa eta zerbitzua ez zirela bateragarriak. Horrez gain, interesdunari azaldu zion zergatik eten zioten prestazioa gizarte-hezkuntzazko zerbitzutik (zerbitzu hori prestazioarekin bateragarria da eta 21 urtera arteko erabiltzaileak artatzea du helburu) eguneko zentrori igarotzean.

Aurreko gertaerak kontuan hartuta, Arartekoak informazio eskaera bat bidali zion aipatutako sailari. Horren bidez, ondoren aipatuko ditugun zenbait gogoeta aurreratu genizkion, eta prestazioa zergatik ukatu zioten galdetu eta adierazitako gogoeten balorazioa egiteko eskatu genion. Erantzunik jaso ez genuenez, errekerimendua bidali genion adierazitako sailari eta, 2017ko ekainaren 12an, jarraian jasotakoa jakinarazi zigun.





Gogoetak

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoan onetsitako erabakian oinarrituz onartu zen; organo horretan sisteman eskumenak dituzten erakunde guztiek hartzen dute parte. 1. Eranskinean zorroaren zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen fitxak jasotzen dira; hala, Katalogoaren 3.1.2 prestazioari buruzkoan, "Familia inguruneko zaintzetarako eta zaintzaile ez da. Autonomia Pertsonalaren eta Menpekotasun Arretaren Sustapenerako Zerbitzuaren barruan sartzen da eta zerbitzuko gainerako prestazio ekonomikoekin bateraezina da (zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoarekin izan ezik), baina bateragarria da menpekotasunari arreta emateko zerbitzu guztiekin, zentroetan edo egoitza-zerbitzuetan edo ostatu-zerbitzuetako egonaldi iraunkorrekin izan ezik, horiek publikoak, itundutako pribatuak edo itundu gabeko pribatuak diren gorabehera. Egoitza-zerbitzu bateko aldi baterako egonaldi batekin bateragarri egiten denean, aldi baterako etengo da, egonaldia amaitu arte, foru aldundi bakoitzak ezarritako terminoetan.

Horrela, menpekotasunari arreta emateko gainerako zerbitzuekin osorik bateragarria izateko salbuespen bakarra da egoitza-zerbitzu batean egotea (modu iraunkorrean edo aldi baterako), baina hori ez da aztertzen ari garen kexaren kasua.

Dekretu horretan xedatutakoa gorabehera, eta *familia barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa arautzen duen urriaren 11ko 152/2016 Foru Dekretu* berriaren zioen azalpenean adierazitako arrazoi nagusia, hain zuzen ere, edukia eguneratzea eta aipatutako araura egokitzea bada ere, 152/2016 Foru Dekretuak hauxe adierazten du 3.2 artikuluan: *"Familia barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa bateraezina izango da zerbitzu eta prestazio hauekin: egoitzan laguntza emateko zerbitzu iraunkorrarekin eta aldi baterako zerbitzuarekin, eguneko laguntza emateko zerbitzu publikoarekin eta zerbitzu horiei lotutako prestazioarekin, baita zentro soziosanitarioetan sartzearekin."*

Are gehiago, adierazi behar da bateraezintasun hori Bizkaiko berezitasun bat dela; izan ere, Gipuzkoan eta Araban Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (185/2015 Dekretuarekin bat etorritz) eguneko arreta-zerbitzuekin bateragarria dela; argi dago hori eguneko erreduzitzaile batekin egingo dela.

Bizkaiko Foru Aldundiak argudio horiek eman zituen eta gogorarazi zigen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema oso konplexua dela eta foru aldundiek, legez, beren zerbitzuak antolatzeke ahalmena dutela (betiere onartutako goi mailako xedapenak errespetatuz), nahiz eta ezin den 185/2015 Dekretuan ezarritakoa zuzenean aplikatu. Legeak egokitzeke prozesu honetan, foru erakundeak hauxe erabaki du: lehenik eta behin, eguneko zentroetan





sartzeko modalitateak zehaztea, eta ondoren, bateragarritasun araubidea erregulatzea. Hala, 2017an zehar, eguneko zentroen modalitateetakoren bat familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoarekin bateragarri bihurtzeko asmoa dute.

Izan ere, prestazio eta zerbitzuen zorroa arautzen duen dekretuan ezarritakoa ezin da zuzenean aplikatu, eta ezinbestekoa da administrazio eskudunak arauak garatzea. Gainera, Arartekoari egokia iruditzen zaio esperientzia pilotuak abiarazi izana, zerbitzuak (eta izan litezkeen modalitateak) ahalik eta ondoen diseinatzeko pertsonen premietara egokitu daitezen. Haatik, 18 hilabete baino gehiago igaro dira 185/2015 Dekretua onartu zenetik, eta 2016aren amaieran familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoaren erregulazioa eguneratu zuen foru dekretua onartu zen. Hala eta guztiz ere, oraindik ere badira bateraezintasunak. Bitartean, kexagileak bezala mendekotasun handia duen pertsona bat eguneko zentroan ez dagoenean zaintzen dutenen eskubidea ezin da gauzatu.

2. Halaber, bada kontuan hartzeko beste kontu bat: prestazioaren preskripzio teknikoa. Erakunde honek jakin badaki bateraezintasuna desagertzeak ez duela bermatzen prestazioa jaso ahal izatea. Izan ere, pertsonaren edota familiaren beharrei aurre egiteko egokitasuna –12/2008 Legeak eta 185/2015 Dekretuak adierazten duten bezala– erreferentziazko profesionalaren preskripzio teknikoaren bidez justifikatu beharko litzateke. Nolanahi ere, horrek esan nahi du egoeraren balorazio berezia egin behar dela eta erantzun arrazoitu bat eman. Kexagileak azaldutako kasuan antzeman daiteke, gutxienez orain dela bi urte arte, prestazio hori egokitzat jo zela menpeko pertsonaren beharrei aurre egiteko. Bere ustez, ez da aldaketa nabarmenik egon menpeko pertsonaren egoeran, ezta zaintzaile nagusiaren egoeran ere, zentroaren aldaketaz gain.

Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunean ez da kontu hori aipatu. Hortaz, ondorioztatzen dugu prestazioaren eta zerbitzuaren egokitasuna ez dela zalantzan jarri.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak familia-giroan zaintzeko prestazioa lehenbailehen erregulariza dezala Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuari jarraiki, eta prestazioa eta lege orokorrean ezarritakoa bateragarriak izan daitezen berma dezala.

